

Salda eta konpainia banatzen

Etixerik gabekoek osatzen dute gure hiri eta herrietako kolektiborik baztertuenetakoa. Iruñean, lo egiteko aukeratzen dituzten lekuetatik erronda egiten dute Paris 365 jantoki sozialeko hainbat boluntariok, salda beroa eta konpainia eskaintzeko.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

SALDA BEROA du izena ekimenak eta iragan urtean jarri zuten abian, Nafarroako Unibertsitate Publikoko talde batek Iruñeko karriketan lo egiten duten lagunei buruzko azterketa egin ostean. Zerbitzuaren arduradun Dori Iriartek dio kalean lo egiten dutenen profila eta jantoki sozialera doazenena oso desberdina dela, etxe premia eta behar ekonomikoak izateaz gain, problema erantsiak zamaten baitituzte. Batzuk alkohola edo beselako drogen menpe bizi dira, beste hainbatek buru arazoak dituzte, edo legez kanpo bizi diren etorkinak dira, laguntza oro ukatzen zaizkienak. Azterketaren arabera, karriketan bizi diren gehienak gizonak dira, 40 eta 45 urte bitartekoak, eta Iruñeko Alde Zaharrean eta Zabalgunean ezartzen dira batik bat.

Karriketan lo egiten dutenek, eskuarki, bakardade sentimendu oso sakona dute. Salda Beroa proiektua “karrikako jendearekin egoteko aitzakia hutsa da, beraiekin solas egiteko, konpainia egiteko. Jendea ezin da zopa bakar batekin elikatu. Karrikan lo egiten dutenekiko gertutasuna bilatzen dute boluntarioek”, azaldu du Iriartek. Nafarroako hiriburuan erroldaturik ez daudenak karrikan bizitzera derrigor-tuta daude, Trinitarios-eko aterpetxeak soilik hiru egunez egoteko baimena ematen baitie. Iruñean bi urtez egon behar duzu erroldan izena emanda, aterpean jarraian lo egin ahal izateko. Hotzaren aurkako protokoloa aktibatzen denean baino ez dira zabaltzen denentzat aterpetxeko ateak; hots, tenperatura 3 gradutik beherakoa denean.

Karrikaz karrika abiatu gara

Arratsaldeko zazpiak laurden gutxian geratu gara, Paris 365eko atarian. Eurria gogotik ari du. Gaur lau lagun elkartu dira: Asun, Antonio, Mikel eta Javi. Abendutik martxora ateratzen



Irudian, Paris 365 jantoki soziala, kanpotik. Bertako lau boluntarioekin ibili gara Iruñeko karriketan zehar, aterpetxeetan lo egin ezin dutenei salda, lo zorroak eta konpainia pixka bat banatzen.

dira, urteko hilabeterik hotzetenan, astelehen eta asteazkeno. Furgonetan salda-termoa, motxilak eta lo egiteko zorroak sartu, eta abiatu gara. Autobus geltoki zaharraren ondoko eraikin handi baten sotoan egin dugu lehen geldialdia. Adats luzeko gizon bat lurrean etzanda dago, maindire potolo batzuen azpian; aulki gurgildun baten gainean berriz, bi hankak ebakita dituen gizon edadetu bat; eta haren gibelean, bere alaba, 30 urte bete gabek dituen. Elkarren artean errumanieraz mintzo dira, eta gaztelaniaz kostata egiten dute. Zulo honetan zazpi hilabete daramatzate. Aterpetxetik laster bota zituzten. Zopa banatu eta lurrean etzanda dagoen gizonari lo egiteko zorroa eman diote, kartoi puska baten gainean lo egiten baitu.

Bigarren geldialdia Rodezno Kontearen Plazan egin dugu. Plazako arkupeetan elkartu dira inguruan lo egiten duten magrebtarrak. Zopa ekarri eta edaten duten bitartean eurekin hitz egiteko probestu dugu. Batek kontatu du Marokon kimikaria zela, eta Bartzelonan hogeituz lan horretan jardun zuela. Karrikaz karrika segitu dugu eta Sarasate Pasealekuko kutxazain batean bi lagun aurkitu ditugu: 72 urteko gizona, Avilan jaioa; eta gazte andaluziar bat, oso berritsua. Zopa eman beharrean zergatik ez diogun euro bat ematen galdetu digu, “tabakoa zopa baino beharrezkoagoa” baitu. Boluntarioek erantzun diote dirua ematea debekatua dutela.

Bueltan kontatu didatenez, gazte andaluziarrak buru arazoak ditu, eta mediku batengana eraman nahiko lukete, baina berak ez du nahi. Gauak eta euriak basamortu bihurtu dituzte Iruñeko karrikak. Zabor-kamioiaren zaratak hausten du etxeetan, eta kutxazainetan, lo egiten duen hiri honen isiltasuna. ■

